

GAZTELU ETA OREXA-KO TOPONIMIA GIPUZKOA

(Materialeak eta oharrak)

LUIS MARIA MUJIKAK

GAZTELU

AANZASTI (ARANZASTI)
herri bereko lurtsaila,
1851 urtea.

AGINABEKOA
herri bereko zuhaitz-baso eta
zuhaixka-basoa.

AGINAGA
herri bereko baserria,
1619 urtea¹, IGC mapa.

AGINAGABEKOA
herri bereko baserria.

AGINAGAGOIKOA
herri bereko borda, erreg.
62,200,17; 1847 urtea².

AGINAGAGOIKOBORDA
herri bereko borda.

AGINAGALDAPE
herri bereko laborelurra.

AGINAGALDEA
herri bereko sagastia.

AGINAGALDEKOSOROA
herri bereko belardi eta
laborelurra.

AGIN-AGABURU
herri bereko zuhaixka-basoa.

AGIÑAGATXIKI
herri bereko baserria.

AGIÑAGAUNDI
herri bereko baserria.

AITONASORO
herri bereko belardia.

AITZALEKOBELAZEZA
herri bereko belardia.

AIZBIAR (?)
herri bereko zuhaixka-basoa.

AITZELUPE (AITZULUPE)
herri bereko lurtsaila.

AITZLUPE (AITZULUPE)
herri bereko belardi eta
zuhaixka-basoa.

¹ *Aginaga* baserria, IND. (OGPAR) 1 lib. 140 zenb., 1619-ko urtarrilaren 12-an Juanes Iriarte-k Gaztelu-ko elizari 35 dukat hipotekan hartzen. Agiña hitzak «tejo» zuhaitza esan nahi du, agian, lat. *faginam*-etik datorrelarik.

² *Aginagagoikoa* etxea. «... y contra Joaquín Lorenzo de Arriategui... dueño de las casas de Aguinaga y Aguinagabekoa con sus pertenecidos sitios también en Gaztelu, y por Miguel Antonio Aguirrebarrena su fiador de la casa de su apellido con los suyos sita en Lizarza...» (C. HIP. (OGPAR) 3 lib. orokorra, 46 zenb., 29 or., 1847 urtea).

AITZPIUR (AIZPIUR)
herri bereko borda³.
AITZULUPE
herri bereko zuhaitz-basoa.
AIZEANEGI
herri bereko lurtsaila.
AIZELEKU
herri bereko zuhaixka-basoa.
AIZEOTZ
herri bereko laborelurra.
AIZKORREGI
herri bereko gaztainadia,
erreg. 77,320,173.
AIZKOZ
herri bereko lurtsaila,
1854 urtea⁴.
AIZOLA (AITZOLA)
herri bereko belardia,
erreg. 53,36,152; amil. 25 or.
AIZOTZ (AIZKOTZ?)
herri bereko lurtsaila.
AIZPURU
herri bereko belardia.

AIZPURUTA
herri bereko lizardia,
erreg. 42,36,131; amil. 24 or.
AIZULUPE (AITZULUPE,
AITZELUPE)
herri bereko lurtsaila,
1851 urtea⁵.
AKETXIKOZELAIA
herre bereko belardi eta
laborelurra.
ALLARRONDO (?)
herri bereko belardia.
ALZARTE
herri bereko zuhaixka-basoa.
AMUTEGI
herri bereko zuhaitz-basoa.
ANAKAR
herri bereko garodia,
1857 urtea⁶.
ANAKARKOERREKAONDOA
herri bereko belardi eta
zuhaitz-basoa.
ANSO (ANTSOENEA)
herri bereko baserria.

³ *Aitzpiur* borda. Laspiur *lats-biur* (arroyo torcido edo retuerto) kasuan gisa, afrikari ondorengo gorketa oklusiba ozenean. Etimologikoki «roca torcida», bainan *aitz* askotan aritz (roble)-ren sinkopa dela kontutan izanik probableago *aritz-biur* (roble retorcido). Herri berean *Azkondieta* (*Aizkondieta*) *Arizkondegieta* ordez (lugar de *robles*).

⁴ *Aizkoz* lurtsaila, C. HIP. (OGPAR) 1 lib., 84 zenb., 1854-eko abuztuaren 5-ean Juan Bta. Arritegi-k bere semeari lurtsailaren jabetza uzten.

⁵ *Aizulupe* Prasenea baserriko lurtsaila, C. HIP. (OGPAR) 7 lib., 165 zenb., 1851-eko azaroaren 15-ean herriko epaitegiak edo juzkatuak Martin Mujika-ri lurtsailaren jabetza saltzen.

⁶ *Anakar* lurtsaila, C. HIP. (OGPAR) 2 lib., 21 zenb., 1857-ko urtarrilaren 5-ean. Anakar mendiak Oresa-ko lurra ere ukitzen ditu. Oso maiz gertatzen da (hitzaurrean adierazten genuenez) toponimo bat bera inguruko herri askotan ematea mendia zabala denean, ala aipaturiko lurtsaila beste herri batekin mugakide (confinante) denean. Gaztelu-n eta Lizartza-n aipatzen dira, adibidez, *Zupitxar*, *Saguzar*, *Babaza*, *Mairikinea* (Maikiñea) toponimoak. Batzutan, bestalde, baserri ala lurtsail bat nahiz-eta mugakide ez izan, aipa daiteke bi herrietan, herri zehatz batek lurtsailak alboko (ala urrunagoko) herri batean lurra juridikoki erosiak ala tradizioz bere jabetzakoak dituelako. Azkeneko hau oso sarritan gertatzen da. Lizartza-ko *Añi* etxea, adibidez, gaur Lizartza-koa da, bainan bere inguruetan Gaztelu-k juridikoki herrilurra, nahiz-eta mugakideak ez izan.

ANSOGAZTAN-ADIE

herri bereko garodia.

ANSOGAZTAN-EA

herri bereko zuhaixka-basoa.

ANSOLA

herri bereko zuhaixka-basoa.

ANTXOLAR

herri bereko zuhaixka-baso eta soila.

ANTZIALDEKOZELAIA

herri bereko belardi eta laborelurra, amil. 6.

ANZELUZ

herri bereko zuhaitzia, 1854 urtea⁷.

ANZI

herri bereko zuhaitz-baso eta zuhaixka-basoa.

ANZIGOIENA

herri bereko zuhaixka-basoa.

ANZIKOBORDA

herri bereko belardi eta laborelurra.

ANZIÑAGA

herri bereko zuhaixka-basoa.

ANZOKOATARIKOSOROA

(ANZIKOATARIKOSO-ROA?)

herri bereko soroa, 1854 urtea⁸.

AÑBURU

herri bereko zuhaixka-basoa.

AÑI

herri bereko intxaurdi eta txaradia⁹.

APAIZTEGI

herri bereko lurtsaila, 1855 urtea¹⁰.

APEZTEGI (APAIZTEGI)

herri bereko baserria, 1845 urtea¹¹.

⁷ *Anzeluz* zuhaitzia edo arboladia, C. HIP. (OGPAR) 1 lib., 115 zenb., 1854-eko abuztuaren 23-an Juan Martin Goikoetxea-k bere seme Martin-i zuhaitz-tiaren jabetza ematen.

⁸ *Anzokoatarikosoroa* soroa, C. HIP. (OGPAR) 10 lib., 115 zenb., 1854-eko abuztuaren 23-an. Toponimo hau, seguraski, *Anzikoatarikosoroa* da, aurretiko *Anzigoiena*, *Anzikoborda*, *Anziñaga* (Antziñaga) tokizenez sugeritzen dutenez. XVI, XVII eta XVIII mendeetan ere eskribauen akatsak ez dira urriak, nahiz-eta jatorriz (XX mendeko asko ez bezala) eskribau-idazkariak *euskaldunak* izan. Euskaldun haiek gaztelania oso jantzia zeukaten, baina euskaldun *analfabetoak* ziren, zinez. Ama-hizkuntzarekiko mespretxua eta arduraz darite euren eskuizkribuek. Beste zenbait jauntxo eta burges, kultur gizon gisa, etxeko kulturarekiko konplexu penagarrianean zetzan. Hitzaurrean esan dugunez, ala ere, XX mendeko amilaramendu eta beste zerga eta katastro-zerrenden testigutzak oraindik okerragoak dira, ezen-eta herri aunitzetan, jadanik, idazkariak erdaldun hutsak baitziren (eta baitira).

⁹ *Añi* intxaurdi (intxausti) eta txaradia. Tokialde hau, aldi berean, Lizartza-koa eta Lizartza-ko lurretan, nahiz-eta juridikoki parajeko zenbait sail Gaztelu-koa izan.

¹⁰ *Apaitzegi* lurtsaila, C. HIP. (OGPAR) 2 lib., 6 zenb., 1855-eko ekainaren 14-ean. Juan Bta. Aranalde-k Diego Antonio Aurkia-ri 100 dukat hipotekan hartzen. Dударik gabe, *Apaitzegi*, *Apeztegi* baserriaren aldagai giputza da.

¹¹ *Apeztegi* baserria. «...viuda de Dn. Juan Martin de Aranalde, madre tutora y curadora de su único hijo Dn. Juan Bautista. Dueño de la casa nombrada Apeztegui de acia la Iglesia de dicho lugar, y como tales Patronos de la capellanía fundada por Dn. Martín Zorrobiaga» (C. HIP. (OGPAR) 1 lib. crokorra, 188 zenb., 147 or., 1845 urtea).

APEZTEGIARANALDENEA
herri bereko baserria,
erreg. 26,103,136.
APEZTEGIAUZKOA
herri bereko baserria.
APEZTEGIBORDAONDOA
herri bereko mendialdea.
APEZTEGIKOBORDATARIA
herri bereko laborelurra.
ARAGOR
herri bereko baserria,
1847 urtea¹².
ARAGORBARRENA
herri bereko baserria,
1779 urtea¹³.
ARAGORBEA
(ARAGORBERA)
herri bereko baserria,
erreg. 3,63,17.
ARAGORBEASORO
herri bereko laborelurra.
ARAGORBEKOA
herri bereko belardia,
nomenklator 94 or.
ARAGORBERA
herri bereko baserria,
1845 urtea¹⁴.
ARAGORBURU
herri bereko zuhaitz-baso eta
zuhaixka-basoa.
ARAGORONDO
(ARAGORRONDO)
herri bereko lurtsaila,
errg. 31,63,141.

ARAITZAGAKOBORDA
herri bereko belardia.
ARAITZOLA
herri bereko belardi eta
zuhaixka-basoa.
ARANA
herri bereko belardia.
ARANABEKOA
herri bereko belardi eta
laborelurra.
ARANAERRENA
herri bereko erreka eta
lurtsaila, 1851 urtea¹⁵.
ARANAKOZUBIZA
herri bereko zuhaitz-basoa.
ARANALDAPA
herri bereko gaztainadia,
erreg. 124,399,146.
ARANALDEA
herri bereko belardia.
ARANALDEBARRENA
herri bereko zuhaitz-baso eta
zuhaixka-basoa.
ARANBEKUA
herri bereko belardia.
ARANDA (ARANA?)
herri bereko laborelurra.
ARANEALLOAZ
herri bereko lurtsaila,
1835 urtea¹⁶.
ARANEKOSOROAZPI
herri bereko zuhaitz-basoa.
ARANKETA
herri bereko soila.

¹² *Aragor* baserria. «...transigieron ambos marido y muger con Juan José de Machinandiarena vecino del lugar de Gaztelu los derechos correspondientes á aquella en las casas nombradas Aragor y Aragorbera con sus pertenecidos...» (C. HIP. (OGPAR) 3 lib. orokorra, 438 zenb. 304 or., 1847 urtea).

¹³ *Aragorbarrena* baserria, C. HIP (OGPAR) 1 lib., 135 zenb. 1779-ko martxoaren 25-ean.

¹⁴ Cfr. C. HIP (OGPAR) ibidem, 1847 urtea.

¹⁵ *Aranaerreka* lurtsaila, C. HIP (OGPAR) 7 lib., 165 zenb., azaroaren 15.

¹⁶ *Aranealdaz* lurtsaila, C. HIP. (OGPAR) 1 lib., 1835-eko otsailaren 4.

ARANSASTIGOIKOA

herri bereko garodia,
erreg. 11,36,55.

ARANTZENEKOIGUANGO-SOROA

herri bereko soroa.

ARANZASTI

(ARANSAGASTI?)

herri bereko zuhaitz-basoa.

ARANZATEGI

herri bereko zuhaitz-baso eta
zuhaixka-basoa.

ARATEAR (?)

herri bereko zuhaixka-basoa.

ARBIDE

herri bereko baserria,
1784 urtea¹⁷.

ARBITERREKA

herri bereko zuhaitz-baso eta
errika.

ARBURU

herri bereko garodia.

ARBURUKOAITZA

herri bereko zuhaixka-basoa.

ARBURUKOGARALEKUE

herri bereko garodia.

AREIZAGABARRENA

herri bereko baserria,
erreg. 8,36,39.

ARGARATE

herri bereko baserria,
erreg. 25,103,98;
1742 urtea¹⁸,
nomenklator 94 or.

ARGARATEKOATARIA

herri bereko belardia.

ARGORRI

herri bereko zuhaixka-basoa.

ARISTIBEKOA

herri bereko zuhaitz-basoa.

ARITZAGA (AREITZAGA)

herri bereko baserria.

ARITZALA

herri bereko garodia,
erreg. 230,563,186.

ARITZELAI

herri bereko belardia.

ARIZOLA

herri bereko belardia.

ARKATXARRETA

herri bereko zuhaixka-basoa.

AROZEA (AROTZANEA)

herri bereko baserria,
erreg. 6,36,25.

ARRAIZOLA

herri bereko lurtsaila,
1827 urtea¹⁹.

ARRALDA

herri bereko laborelurra.

Aldatz/aldats osagaiak «cuesta» esan nahi du (Azkue *Dicc.* I, 29. Bizkai-ko Arratia-n *Aldatz* ahozkatzen da).

¹⁷ *Arbide* baserria, C. HIP. (OGPAR) 1 lib., 165 zenb., 1784-eko ekainaren 26-ean Pedro Arbide-k Tolosa-ko parrokiari 139 dukat hipotekan hartzen. Etimologikoki interesgarria *arri* osagaiak azken bokalea nola galtzen duen (arr-) *Arburu*, *Argorri*, *Arbide*, *Argarate* Gaztelu-ko toponimoetan.

¹⁸ *Argarate* baserria, IND. (OGPAR) 3 lib., 41 zenb., 1741-ko urtarrilaren 6-ean Pedro Etxeberria-k Mateo Aranalde-ri 100 dukat hipotekan hartzen.

¹⁹ *Arraizola* lurtsaila, C. HIP. (OGPAR) 1 lib., 468 zenb., 1835-eko otsailaren 4.

- ARRIA
herri bereko mendialdea,
1832 urtea²⁰.
- ARRIBITARTE
herri bereko zuhaixka-basoa.
- ARRIGAN-A
herri bereko belardi eta
zuhaitz-basoa.
- ARRIGORRI
herri bereko garodia,
erreg. 80,320,183.
- ARRIGORRIARAN
herri bereko gaztainadi eta
hariztia.
- ARRIGORRIENA
herri bereko pinudia.
- ARRILLAGA
herri bereko sagasti eta
laborelurra.
- ARRITEGI
herri bereko baserria,
erreg. 45,200,15; 1845 urtea²¹.
- ARRITEGISORO
herri bereko sagasti eta
laborelurra.
- ARRIZURIAGA
herri bereko soila.
- ARROBIAGA
herri bereko baserri eta
zuhaixka-basoa.
- ARROBIGAIN
herri bereko zuhaixka-basoa.
- ARROBIGAINPAGOMUTEGI
herri bereko belardia.
- ARROBIGOIKOA
herri bereko belardia.
- ARROBILLAGA
herri bereko belardia,
erreg. 171,563,38.
- ARROIZPE (ERROIZPE)
herri bereko lurtzaila, IGC mapa.
- ARROLLAGA
herri bereko laborelurra.
- ARTABURU
herri bereko garodia,
erreg. 6,103,27; 1833 urtea²².
- ARTEBURU (ARTABURU)
herri bereko zuhaixka-basoa.
- ARTETXEALDEA
herri bereko belardi, zuhaitz-baso
eta zuhaixka-basoa.
- ARTETXEATARIA
herri bereko lurtsaila,
erreg. 9,36,48.
- ARTETXEATARIKOLIZAR-
DIA
herri bereko belardia.
- ARTETXEATARIKOSOROA
herri bereko belardia.
- ARTETXEAZPIA
herri bereko belardi eta
laborelurra.
- ARTETXEAZPIKO
herri bereko zuhaitz-basoa.
- ARTETXEONDOKOARBO-
LADIA
herri bereko zuhaitz-basoa.

²⁰ *Arria* mendialdea, C. HIP. (OGPAR) 1 lib., 422 zenb., 1832-ko urtarrilaren 30.

²¹ *Arritegi* baserria. «...há hecho una declaracion reducida á manifestar que entre otros bienes para la casa nombrada Arritegi con sus pertenecidos sitios en el lugar de Gaztelu que trae en arriendo Manuel Ibarlucea» (C. HIP. (OGPAR) 1 lib. orokorra, 277 zenb., 218 or., 1845 urtea).

²² *Artaburu* gaztainadia, C. HIP. (OGPAR) 1 lib., 452 zenb., 1833-ko otsailaren 10. *Arteburu* aldagaiak argitzen du toponimo honen lehen osagaia *arte* (encina) dela, eta ez *arto* (maíz), *Arteaga*, *Artazu*, *Artajo* eta gisako gehienetan bezala.

ARTETXETA

herri bereko garodia,

1881 urtea²³.ARTETXETAKOGAZTAN-
-ERIA

herri bereko zuhaitz-basoa.

ARTITXETA

herri bereko zuhaitz-basoa.

ASKAETA

herri bereko soroa,

1851 urtea²⁴.

ASKAITZ

herri bereko garodia.

ASKAZAR

herri bereko zuhaixka-basoa.

ASKOREGI

herri bereko gaztainadia.

ATARIALDAPA

herri bereko soroa.

ATARIKOBELAZEA

herri bereko belardia.

ATARIERREKAKOARBO-
LADIA

herri bereko zuhaitz-basoa.

ATARIKOSOROA

herri bereko soroa.

ATARIKOZELAIA

herri bereko laborelurra.

ATOLAITURRI (?)

herri bereko zuhaixka-basoa.

ATREMIN

herri bereko lurtsaila.

ATREMINTXULO

herri bereko zuhaitz-basoa.

ATZEMIN (ATREMIN)

herri bereko lurtsaila.

AZALDEGI

herri bereko haritzia.

AZKARREGI

herri bereko soila.

AZKARRETA

herri bereko gaztainadia.

AZKOAIN

herri bereko borda eta lurtsaila.

AZKONDEGIETA

(ARIZKONDEGIETA,
ARIZKONDIETA)herri bereko belardi eta
haritzia, amil. 36 or.

AZKONDEGIETA EDO

AZANDEGIETA

herri bereko belardia,
erreg. 172,563,40.

AZKONDIETA

(ARIZKONDIETA)

herri bereko zuhaitz-baso eta
zuhaixka-basoa.

AZKONDIETAKOTXOKOA

herri bereko zuhaitz-basoa.

AZKONOBIEA

herri bereko zuhaitz-basoa.

AZPIKOSOROA

herri bereko laborelurra.

AZPILLAGA EDO

SANTIAGONEA

herri bereko baserria,
1773 urtea²⁵.

AZPILLAGANSORENA

(AZPILLAGA-ANSORENA)

herri bereko baserria.

²³ *Artetxeta* lurtsaila, C. HIP. (OGPAR) 7 lib., 165 zenb., 1851-eko aza-
roaren 15.²⁴ *Askaeta* soroa, C. HIP. (OGPAR) 7 lib., 165 zenb., 1851-eko azaroa-
ren 15. Bere esanahia «lugar de abrevaderos», gure *aska* lat. (v) ascam -etik etortzea
oso posiblea delarik. Cfr. LEEE 113 or.²⁵ *Azpillaga* edo *Santiagonea* baserria, C. HIP. (OGPAR) 4 lib., 3 zenb.,

AZUMETAKOTXOKOA

herri bereko garodia,
erreg. 107,399,98.

BABAZA

herri bereko baserria,
1772 urtea²⁶.

BARATZAGASTAN-ADI

herri bereko zuhaitz-basoa.

BARATZATXULO

herri bereko belardia.

BARATZERREKA

herri bereko gaztainadi eta
erreka.

BARNETXEA

herri bereko baserria,
1776 urtea²⁷.

BARRUTITA

herri bereko belardia.

BASAKETA

herri bereko laborelur eta soila.

BASAUNDI

herri bereko garodia.

BEKOBELAZA

herri bereko belardia.

BEKOSORO

herri bereko gaztainadia,
erreg. 174,563,44; amil. 23 or.

BELANDEGI (ELANDEGI)

herri bereko baserria,
1687 urtea²⁸.

BELEITURRI

herri bereko belardi eta iturria,
erreg. 52,36,150.

BELEITURRIETA

herri bereko garodia,
erreg. 51,36,148.

BELTZARAN

herri bereko zuhaixka-basoa.

BELTZITURRI

herri bereko lurtsail eta iturria,
1835 urtea²⁹.

BIDABE

herri bereko laborelurra.

BIGURRIAGA (?)

herri bereko lurtsaila,
1828 urtea³⁰.

BORDA ETA ORDOKI

herri bereko zuhaixka-basoa.

BORDABERRI

herri bereko gaztainadia,
erreg. 208,563,156.

BORDABURU

herri bereko zuhaixka-basoa.

2 or., 1773-ko urtarrilaren 5-ean Franzisko Barriola-k Migel Ign. Barriola-ri ja-betza ematen.

²⁶ *Babaza* baserria, C. HIP. (OGPAR) 1 lib., 798 zenb., 1772-ko apirilaren 20-ean Farnzisko Ign. Leizibabaza-k Mateo Gibelalde-ri 100 dukat hipotekan hartzen. Babaza baserria Lizartza-ko jurisdikzioan ere. Seguraski Gaztelu-ko eta Lizartza-ko baserria bat-bera da. *Babaza* etimologikoki, agian, *Bagaza* (lugar de hayas) toponimoaren aldagaia, ohizko ezpainkarien trukaketaz. Ikus L. Mitxelena APV 64 or. Ez dugu uste baltik (lat. favam) kasu hau datorrenik.

²⁷ *Barnetxea* baserria, C. HIP. (OGPAR) 1 lib., 117 zenb., 1776-eko abenduaren 6.

²⁸ *Belandegi* baserria, C. HIP. 1 lib., 53 zenb., 1687-ko irailaren 14. Elandegi izenaren aldagai okerra dirudi, baldin-eta gaur ezagutzen den *Elandegi/Elauandegi/Erlandegi* baserria *bele-* esangaitik ez badator. *Erlandegi* erlo- erroa ez da gutxiestekoa. Ez da erraza hitzaren jatorria ongi zertzea.

²⁹ *Beltziturri* lurtsaila, C. HIP. (OGPAR) 1835-eko ekainaren 26. *Iturri* konposagaia dutenen toponimo aunitzetan bezala *iturri* baten tokizena aldi berean.

³⁰ *Bisurriaga* lurtsaila, C. HIP. (OGPAR) 1 lib., 395 zenb., 1828-ko azaroaren 12.

- BORDALDEA
herri bereko hariztia.
- BORDALDEKOA
herri bereko belardi eta zuhaixka-basoa.
- BORDALDEKOSOROA
herri bereko mendia.
- BORDAONDOA
herri bereko zuhaixka-basoa.
- BORDAONDOKOSOROA
herri bereko soroa.
- BORDAONDOLIZARDIA
herri bereko mendialdea.
- BORDAERREKATXULO
herri bereko belardia.
- BORDATARI
herri bereko zuhaitzia.
- BORDATARIKOBELARDIA
herri bereko mendialdea,
erreg. 216,563,152.
- BORDATARIKOLIZARDIA
herri bereko lurtsaila,
erreg. 47,36,140.
- BORDATARIKOSOROA
herri bereko sagastia.
- BORDATXURI
herri bereko baserria, -
1771 urtea³¹,
nomenklator 94 or.
- BORDATXURIALDEA
herri bereko lurtsaila,
erreg. 165,563,25.
- BORDATXURIATARI
herri bereko zuhaitz-basoa.
- BORDATXURIATZEA
herri bereko belardi eta zuhaixka-basoa.
- BORDATXURIAZPIKOSO-ROA
herri bereko soroa,
erreg. 27,63,129.
- BORDATXURIKOARIZTIA
herri bereko sagasti eta laborelurra.
- BORDATXURIKOETXEAZPIA
herri bereko belardia.
- BORDATXURIKOGAZTAN-ADIA
herri bereko zuhaitz-basoa.
- BORDAZPIKOSOROA
herri bereko belardia.
- CORAZON DE MARIA ETA SAN PABLO
herri bereko mea edo mina,
erreg. 72,320,142.
- DENDARI
herri bereko baserria,
erreg. 59,36,154.
- DENDARIKOETXEAUREA
herri bereko belardia.
- DESPUNTE (?)
herri bereko soroa,
erreg. 125,399,149.
- DINDOTA (?)
herri bereko lurtsaila³².
- EGIBEKOA
herri bereko belardia,
erreg. 105,399,86.

³¹ *Bordatxuri* baserria, C. HIP. (OGPAR) 3 lib., 54 zenb., 1771-eko uztailaren 23-an Ana Katalina Soroa-k Lorenzo Iminarrieta-ri 150 dukat hipotekan hartzen.

³² *Dindota* (?) herri bereko lurtsaila. Ez dakigu zihur hitz hau benetakoa ote den. 1951-eko amilaramenduko tokizenak garaiko Finantzako Ordezkaritzaren artxiboetan idazkari galiziar erdalduak hartu zituen, eta ohizkoa denez, toponimo zenbait ez da zihurra. Hona Gaztelu-ko kasuan zenbait: *Albatzerreka?*, *Beti iturri* Beliturri), *Korrondo?*, *Despunte?*, *Eskolapiz* (Otsolapitz), *Garita* (Gañeta?),

EGIGOIKOA

herri bereko belardia.

EGIKOTXOKOA

herri bereko hariztia.

EGILEOR

herri bereko zuhaitz-baso eta
zuhaixka-basoa.

ELANDEGIARTETXEAUREA

herri bereko laborelurra.

ELANDEGIBASO

herri bereko lurtsaila,
1848 urtea³³.

ELANDEGIBEKOA EDO

LIZARRABIDE

herri bereko baserria,
1848 urtea³⁴.ELAUDEGI (ELANDEGI,
ERLANDEGI)

herri bereko baserria.

ELAUNDEGIBASO

herri bereko borda,
erreg. 25,63,120.ELAUNDEGIBASOKOGAZ-
TAN-ADIAherri bereko lurtsaila,
erreg. 53,200,105.

ELAUNDEGIBASOKOSOROA

herri bereko belardia.

ELAUNDETXEBERRI EDO

LIZARZABIDE

herri bereko baserria,
erreg. 54,36,156.

ELEGI

herri bereko laborelurra,
1814 urtea³⁵.

ELEKIBARRENA

(ELEGIBARRENA)

herri bereko lurtsaila.

ELEKIGARAIKOA

(ELEGIGARAIKOA)

herri bereko lurtsaila.

ELGETA (ELKARETA)

herri bereko baserria,
1827 urtea³⁶.

ELGETATXIKIA

(ERKETATXIKIA)

herri bereko baserria.

ELGETAUNDIA

(ERKETAUNDIA)

herri bereko baserria.

ELIZALDE

herri bereko baserria.

Garieta?), *Patermi*, (Atremin), *Itupain* (Istrupain), *Putricho* (Mutriditxo, Mutitegitxo?), *Sarieta* (Sasieta?), *Ugari* (Zubari?). Gaztelu-ko ene lekukoa *Felix Mari-txalar Gabirondo* jauna izan da. Bestalde, bertan meriku-praktikante hogei bat urtetan egoniko ene aita *Pedro Mujika*-k ere lagundu dit toponimo zenbaiteren lekutzean.

³³ *Elandeginbaso* lurtsaila, «...de dos terrenos heriales y robledales de á treinta posturas existentes en el partido de Elandeguibuso, jurisdicción del lugar de Gaztelu en favor de Juan Pedro Telleria, y su finado padre Juan Bautista» (C. HIP. (OGPAR) 3 lib. orokorra, 574 zenb., 386 or., 1848 urtea).

³⁴ *Elandegibekoa* edo *Lizarzabide* baserria. «...y para la responsabilidad del capital censal de cincuenta ducados de vellon y sus renditos anuales... la llamada Elandegui de arriba o Lizarzabide, y el fiador Juan José Goycochea, la llamada Elandegui de arriba ambas con sus respectivos pertenecidos y agregados, sitas en el referido lugar de Gaztelu» (C. HIP. (OGPAR) 3 lib. orokorra, 578 zenb. 390 or., 1848 urtea).

³⁵ *Elegi* lurtsaila, C. HIP. (OGPAR) 1 lib., 363 zenb., 1814-eko apirilaren 18-an Franzisko Matxaindiarena-k Teresa Dominika Iparragirre-ri bere ja-betza saltzen.

³⁶ *Elgeta* baserria, C. HIP. (OGPAR) 1 lib., 389 zenb., 1827-ko abuztua-ren 21.

ELKARETATXIKIA
(ELGETATXIKIA)

herri bereko baserria.

ELORDI

herri bereko belardi eta
laborelurra.

ELOSKI

herri bereko gaztainadia,
1833 urtea³⁷.

ELUETXE

herri bereko laborelurra.

ELUSBARRENGOTXULO

herri bereko zuhaitz-basoa,
amil. 38 or.

ELUZBARREN

herri bereko lurtsaila,
1728 urtea³⁸.

ELUSBURU

herri bereko zuhaitz-basoa.

ELUSKABARRE

(ELUSKABARREN)

herri bereko garodia,
erreg. 144,399,278.

ELUSPEGI (?)

herri bereko zuhaixka-basoa.

ELUTZA

herri bereko laborelurra.

ENEKUTEGI

herri bereko mendialdea,
erreg. 35,36,117.

ENRIKENE

herri bereko baserria.

ERBERAN

herri bereko belardi eta
laborelurra.

ERDIKOBIDEA

herri bereko belardi eta
zuhaixka-basoa.

ERDIKOBIDETA

herri bereko zuhaixka-basoa.

ERDIKOSOROA

herri bereko soroa,
erreg. 8,63,32, amil. 29 or.

ERIANGOERREKA

herri bereko zuhaitz-basoa.

ERIN-ETAONDOKOSOROA

herri bereko belardi eta
laborelurra.

ERLANDEGIBERRIA ETA

LIZARZABIDEA

herri bereko baserria,
1804 urtea³⁹.

ERLANDEGIGOIKOA

herri bereko baserria,
erreg. 58,36,184; 1687 urtea⁴⁰.

ERMITABURUKOSOROA

herri bereko belardia.

ERREGINEA (ERRAN-ENE)

herri bereko baserria,
erreg. 6,200,43.

ERREGINEA EDO

ARREGINEA (ERRAÑENE)

herri bereko baserria,
1771 urtea⁴¹.

³⁷ *Eloski* gaztainadia, C. HIP. (OGPAR) 1 lib., 454 zenb., 1833-ko otsailaren 24.

³⁸ *Eluzbarren* lurtsaila, C. HIP. ? 1 lib., 398 zenb., 1728-ko azaroaren 10-ean Ignazio Goienetxea-k Martin Jose Etxeberria-ri lurtsailaren jabetza saltzen.

³⁹ *Erlandegiberria* eta *Lizarzabidea* baserria, C. HIP. (OGPAR) 1 lib., 319 zenb., 1804-eko ekainaren 9.

⁴⁰ *Erlandegigoikoa* baserria, C. HIP. ? 1 lib., 105 zenb., 1687-ko otsailaren 24.

⁴¹ *Erreginea* edo *Arriginea* baserria, C. HIP. (OGPAR) 1 lib., 6 zenb., 5 or., 1771-eko ekainaren 13-an Sebastian Gaiztarro-k Tolosa-ko Santa Klara komentuari 100 dukat hipotekan hartzen. Baserri honen izena gaur, sinkopatuta, Errañene, dudarik gabe, Erreginea izenetik, bainan baliteke formularik ja-

ERREKA

herri bereko baserria, erreg.
7,36,35, nomenklator 94 or.

ERREKAETXEONDOKOSO-
ROA

herri bereko soroa,
erreg. 28,63,132.

ERREKALDEA

herri bereko gaztainadia.

ERREKALDEKOETXEBURUA

herri bereko lurtsaila,
erreg. 161,399,12.

ERREKALDEONDOA

herri bereko zuhaitz-basoa.

ERREKATARIKOGAZTAN-
-ARIA

herri bereko zuhaitz-basoa.

ERREKATXARRETA

herri bereko zuhaitz-basoa.

ERROTAGAN-A

herri bereko belardia.

ERROTAKOATARI

herri bereko zuhaitz-basoa.

ERROTAKOPRESABURU

herri bereko zuhaitz-basoa.

ERROTALDEA

herri bereko zuhaitz-basoa.

ERROTALDEA EDO

ETXETXO

herri bereko lurtsaila,
1851 urtea ⁴².

ERROTEGI

herri bereko belardi, zuhaixka-
-baso eta zuhaitz-basoa.

ERROTEKA (ERROTETA?)

herri bereko zuhaixka-basoa.

ESNARRE (ESNARRI?)

herri bereko zuhaixka-basoa.

ESNARRI

herri bereko lurtsaila, IGC mapa.

ESPURU

herri bereko zuhaitz-basoa ⁴³.

ESPURUKOSOROA

herri bereko zuhaitz-basoa.

ESTRATABELZAONDOA

herri bereko belardi eta
laborelurra.

ESTRATABURU

herri bereko laborelurra ⁴⁴.

ETEGI

herri bereko zuhaixka-basoa.

ETXABURUKOAITZA

herri bereko zuhaixka-basoa.

ETXAIZKI

herri bereko soroa,
erreg. 37,36,121.

ETXAIZKIGARRAIKOA

herri bereko sasitza.

ETXAIZKIGOIKOA

herri bereko belardi eta
laborelurra.

torrena *Arreginea* izatea, aski ohizkoa baita euskal toki eta deituretan; bestea (*Erreginea*) ez, ordea.

⁴² *Errotaldea* edo *Etxeko* lurtsaila, C. HIP. (OGPAR) 7 lib., 165 zenb., 1851-eko azaroaren 15.

⁴³ *Espuru* lurtsaila, C. HIP. (OGPAR) 1 lib., 163 zenb., 1783-ko otsailaren 4. Bere esanahia «cabezo o colina del seto» es(i)- eta *-buru* osagaietatik. Esi (seto) konposagaiak i delakoa galtzen du *esol* (esohol) (estaca), *espilla* (esi-bil—seto redondo—), *esparru* (esi-barru) kasuetan behintzat.

⁴⁴ *Estrataburu* laborelurra. Bere etimologian lat. *stratam* eta gure arribiko *-buru* (*cabezo del vericuetu* esanahiaz).

ETXASKI

herri bereko lurtsaila,
1832 urtea⁴⁵.

ETXASKIBEKOA

(ETXAIZKIBEKOA)

herri bereko soroa,
erreg. 54,63,240.

ETXAZPI (ETXEAZPI)

herri bereko zuhaitz-basoa.

ETXAZPIAUNDI

herri bereko zuhaixka-basoa.

ETXAZPITXIKI

herri bereko zuhaixka-basoa.

ETXEATZEA

herri bereko sagastia.

ETXEAURREKOSOROA

herri bereko soroa,
erreg. 19,63,98.

ETXEAURRE

herri bereko laborelurra.

ETXEAURREKOGASTAN-
-ARIA

herri bereko zuhaitz-basoa.

ETXEAURREKOSOROA

herri bereko laborelur eta soila.

ETXEAZPI

herri bereko zuhaitz-basoa.

ETXEAZPIAMIKELAIZ EDO
ITURRI(TXIKIA)

herri bereko belardia.

ETXEAZPIBEKOA

herri bereko belardi eta
laborelurra.

ETXEAZPIKOSOROA

herri bereko soroa.

ETXEBERRIA

herri bereko zuhaitz-baso eta
etxea, 1671 urtea⁴⁶.

ETXEBERRIGOIKOA

herri bereko baserria,
nomenklator 94 or.

ETXEBURUA

herri bereko soroa,
erreg. 5,63,23, amil. 6

ETXEBURULANBERRITXIKI

herri bereko laborelurra.

ETXEONDO

herri bereko belardi eta
laborelurra.

ETXEONDOKOBARATZA

herri bereko baratza.

ETXETO

herri bereko baserria.

ETXETXO (ETXETO)

herri bereko etxe eta laborelurra.

ETXEZKIETA

(ETXAIZKIETA)

herri bereko lurtsail eta borda,
1840 urtea⁴⁷.

ETXO

herri bereko soroa,
erreg. 15,63,78, IGC mapa.

ETXO EDO ERROTALDEA

herri bereko lurtsaila,
1851 urtea⁴⁸.

ETXO EDO INTXUSEGI

herri bereko garodia,
erreg. 3,103,12.

⁴⁵ *Etxaski (Etxaizki)* lurtsaila, C. HIP. (OGPAR) 1 lib., 487 zenb., 1838-ko martxoaren 16.

⁴⁶ *Etxeberría* etxea, IND. (OGPAR) 1 lib., 50 bis zenb., 23 or., 1677-ko urrilaren 5.

⁴⁷ *Etxezkieta* lurtsail eta borda, C. HIP. (OGPAR) 1840-eko maiatzaren 30.

⁴⁸ *Etxo* edo *Errotaldea* lurtsaila, C. HIP. (OGPAR) 1 lib., 165 zenb., 1851-eko azaroaren 15-ean herriko epaitegia-k Martin Mujika-ri lurtsailaren jabetza saltzen.

ETXO EDO ZABALA
herri bereko lurtsaila,
1839 urtea⁴⁹.
FELIZIANORENA
herri bereko baserria⁵⁰.
FRANSESARENA EDO
PRASENEA EDO
IRIONDOBARRENA
herri bereko lurtsaila.
1768 urtea⁵¹.
FRASENEA (PRASENEA,
FRANTZESANEA)
herri bereko baserria,
erreg. 28,103,165.
GABIRONDO
herri bereko baserria,
erreg. 147,399,224.
GAILUZ (?)
herri bereko lurtsaila.
GALTZADAKO
herri bereko zuhaitz-basoa.
GALTZADAKOGARALEKUA
herri bereko zuhaitz-basoa.
GALTZADAONDUA
herri bereko gaztainadia,
erreg. 13,36,61.
GALTZADATA
(GALTZADAETA)
herri bereko zuhaixka-basoa.
GALTZALDE
(GALTZADALDE?)
herri bereko laborelurra.
GALTZAONDO
(GALTZADAONDO)
herri bereko zuhaixka-basoa.

GALTZARALDEA
herri bereko laborelurra.
GALTZARATAKOGAZTENE-
DIA
herri bereko garodia,
erreg. 101,36,125.
GALZADA
herri bereko hariztia,
1848 urtea⁵².
GALTZADAKOGAZTAN-
-ERIA
herri bereko pinudia.
GALTZADAKOSOROA
herri bereko lurtsaila.
GALTZADATA
(GALTZADAETA)
herri bereko gaztainadia,
erreg. 41,36,125.
GALTZADATAKOARISTIA
(GALTZADAETAKOARIS-
TIA)
herri bereko garodia.
GALZAETA
(GALTZADAETA)
herri bereko zuhaitz-basoa.
GALZATEGAZTAN-ADI
herri bereko gaztainadia,
erreg. 213,563,146.
GAMIOKOGAROLEKUA
herri bereko zuhaitz-baso eta
zuhaixka-basoa.
GAN-ETA
herri bereko belardia.
GARAIZELAIETA
herri bereko zuhaitz-basoa.

⁴⁹ *Etzo* edo *Zabala* lurtsaila, C. HIP. (OGPAR) 1 lib., 496 zenb., 1839-ko urrileren 14.

⁵⁰ *Felizianorena* baserria, IDN. (OGPAR) 1 lib., 198 zenb., indizeen 30 or.

⁵¹ *Franzesarena*, edo *Prasenea*, edo *Iriondoabarrena* baserria, 2 lib., 116 zenb., 1769-ko ekainaren 13-an Maria Aragor-ek J. Bautista Aragor-i jabetza ematen.

⁵² *Galzada* hariztia, C. HIP. (OGPAR) 4 lib., 336 zenb., 1848-ko urrileren 30-ean Jose Maria Gabirondo-k Altzo-ko parrokiari 100 dukat hipotekan hartzen.

- GARALEKUAUNDI
herri bereko lurtsaila.
- GARMENDI
herri bereko soroa.
- GARMENDIALDE
herri bereko belardi eta laborelurra.
- GARMENDIAUZKONEA
herri bereko belardia.
- GARMENDIAZPI
herri bereko laborelurra.
- GARMENDIERDIKOA
herri bereko belardi eta laborelurra.
- GARMENDIETXETXO
herri bereko laborelurra.
- GARMENDIKOBEKOSOROA
herri bereko belardia.
- GARMENDIKOSOROA
herri bereko lurtsaila, erreg.
154,399,246, amil. 22 or.
- GARMENDIONDO
herri bereko lurtsaila,
1743 urtea⁵³.
- GARMENDIONUZKOA
herri bereko laborelurra.
- GARMENDISORO
herri bereko belardi eta laborelurra.
- GARMENDITXIKI
herri bereko lurtsaila,
1817 urtea⁵⁴.
- GAZTAN-ABAKARRA
herri bereko zuhaixka-basoa.
- GAZTAN-ABEKO
herri bereko garodia.
- GAZTELU
herri bereko herri herrota eta baratza.
- GAZTELUETXEBERRI
herri bereko etxea,
erreg. 112,397,116.
- GAZTELUKOERROTA
herri bereko lurtsaila,
erreg. 12,63,43.
- GAZTELULUBERRI
herri bereko laborelur eta zuhaitz-basoa, amil. 58 or.
- GESATARI
herri bereko laborelurra.
- GIBELALDEALDEA
herri bereko soroa.
- GIBELALDEA EDO LUPAZETA
herri bereko lurtsaila,
1854 urtea⁵⁵.
- GIBELALDEATARIKOSOROA
herri bereko laborelurra.
- GIBELALDEAZPIKOA
herri bereko baserria,
erreg. 57,36,176, 1847 urtea⁵⁶.

⁵³ *Garmendiondo* lurtsaila, C. HIP. ? (OGPAR) 1 lib., 242 zenb., 112 or., 1743-ko urtarilaren 24.

⁵⁴ *Garmenditxiki* lurtsaila, C. HIP. (OGPAR) 1 lib., 359 zenb., 1817-ko abuztuaren 9.

⁵⁵ *Gibelaldea* edo *Lupazeta* lurtsaila, C. HIP. (OGPAR) 9 lib., 397 zenb., 1854-eko urtarilaren 10. Esana dugunez, Nafarroa ala Iparraldekoa den *gibel* (gaur *atze*, *oste* bakarrik) hitza aski ohizkoa eskualdeko toponimoetan. *Lupazeta* (Lupazeta), terminoak, seguraski, «ciénaga, lodazal» esan nahi du hemen.

⁵⁶ *Gibelaldeazpikoa* baserria. «...manifesto esta que era dueña propietaria de la casa llamada Guibelalde azpicoa y sus pertenecidos sitios en dicho lugar de Gaztelu con varias cargas y obligaciones, y que el mismo Martin José introdujo doscientos ducados en dinero» (C. HIP. (OGPAR) 3 lib. orokorra, 389 zenb., 267 or., 1847 urtea).

- GIBELALDEGOIENA
herri bereko baserria,
erreg. 64,320,12.
- GIBELALDEJAUNARENA
herri bereko baserria,
erreg. 66,36,232.
- GIBELALDEJUANENA
herri bereko baserria,
1848 urtea⁵⁷.
- GIBELALDEKOATARIA EDO
LAPAZETA (LUPAZETA)
herri bereko soroa,
erreg. 35,63,155.
- GIBELALDEKOETXABURUA
herri bereko laborelurra.
- GIBELALDESORO
herri bereko baserria,
1703 urtea⁵⁸.
- GOIENETXEABARRENA
herri bereko baserria,
1668 urtea⁵⁹.
- GOIENETXEGOIKOA
herri bereko baserria,
erreg. 54,1,206.
- GOIETXEA
herri bereko baserria,
erreg. 38,63,170.
- GOIKOBORDAONDOKOBE-
LAZEA
herri bereko belardia.
- GOIKOSOROA
herri bereko belardia.
- GOIKOZELAIA
herri bereko belardi eta
laborelurra.
- GOIO (GOIA?)
herri bereko garodia,
erreg. 28,36,103.
- GOROSTIARAN
herri bereko belardi eta
laborelurra.
- IBARGOIA
herri bereko belardia.
- IBARRA EDO ZAPATARIA
herri bereko baserria,
1763 urtea⁶⁰.
- IBARRAGA
herri bereko zuhaixka-basoa.
- IBARRONDO
herri bereko etxea,
erreg. 33,103,197.
- IGAROLABEKOA
(IOLABEKOA)
herri bereko baserria,
erreg. 14,103,126.
- IGAROLAGOIKOA
(IOLAGOIKOA)
herri bereko baserria, erreg.
25,103,131; 1774 urtea⁶¹.

⁵⁷ *Gibelaldejuanena* baserria. «...la casa nombrada Guibelalde Juanena ó Guibelalde de abajo y el fiador Muñagorri la llamada Iriondo chiquia con sus respectivos pertenecidos radicantes en dicho lugar de Gaztelu comprometiendose finalmente á su eviccion y saneamiento» (C. HIP. (OGPAR) 3 lib. orokorra, 573 zenb., 386 or., 1848 urtea).

⁵⁸ *Gibelaldesoro* baserria, C. HIP. (OGPAR) 1 lib., 168 zenb., 1703-ko apirilaren 14-ean Migel Goikoetxea-k Gaspar Egia-ri 110 dukat hartzen.

⁵⁹ *Goienetxeabarrena* baserria, IND. (OGPAR) 1 lib., 111 zenb., 1668-ko abenduaren 29.

⁶⁰ *Ibarra* edo *Zapataria* baserria, IND. (OGPAR) 3 lib., 39 zenb., 142 or., 1763-ko azaroaren 5. Gaur baserri honek Zapatari izena gordetzen du.

⁶¹ *Igarolagoikoa* baserria, C. HIP. (OGPAR) 1 lib., 3 zenb., 1774-ko martxoaren 1-ean Juan Jose Etxeberria-k Manuel Gaztelu-ri 100 dukat hipotekan hartzen. Gaur sinkopaturik *Iolagoikoa* gisa ezagutzen da Gaztelu-n.

IGARTEBURU

(IRIARTEBURU)

herri bereko lurtsaila,
erreg. 152,399,242.

IGOAN (IGOARAN)

herri bereko zuhaitz-basoa.

IGOANAUNDIA

herri bereko lurtsaila.

IGOANTXIKIA

herri bereko laborelurra.

IGOARAN

herri bereko zuhaitz-basoa.

IGOENE

herri bereko zuhaitz-basoa.

IGOIAGA

herri bereko belardi eta
zuhaitz-basoa.

IGUAN (IGOAN, IGOARAN)

herri bereko soroa,
erreg. 1,36,2; 1861 urtea⁶².

IGUARAN (IGOARAN)

herri bereko lurtsaila,
1861 urtea⁶³.

IGUARANSOROA

herri bereko soroa.

IKARO

herri bereko soroa,
erreg. 7,103,32.

IKARO EDO IGOAN

herri bereko soroa,
erreg. 51,200,123.

ILLARRAMENDI

herri bereko garodia.

ILLARRAUNDI

herri bereko belardia.

ILLARRAGA

herri bereko garodia,
erreg. 193,563,88.

INSAUSTI

herri bereko baserria,
1776 urtea⁶⁴.

INSURRENEKOZELAIA

herri bereko belardi eta
laborelurra.

INSUSARRI

herri bereko gaztainadia.

INSUSEGI (INTXUSEGI)

herri bereko lurtsaila,
1857 urtea⁶⁵.

INTXURREGI

herri bereko zuhaixka-basoa.

INTXUSEGI

herri bereko garodia.

IOLAGOIKOA (IRAOLA,
IGAROLA)

herri bereko baserria.

IRAOLABEKOA

herri bereko baserria,
nomenklator, 94 or.

IRAOLAGOIKOA

herri bereko baserria,
nomenklator, 94 or.

IRIARTEA

herri bereko baserria,
erreg. 34,103,209.⁶² *Iguan* gaztainadia, C. HIP. (OGPAR) 2 lib., 52 zenb., 1861-ko maiatzaren 10-ean Manuel Ibarluzea-k Jose Ign. Ibarluzea-ri gaztainadiaren jabetza ematen.⁶³ *Iguaran* (Igoaran) lurtsaila, C. HIP. (OGPAR) 1 lib., 342 zenb., 1811-ko maiatzaren 22.⁶⁴ *Insausti* baserria, C. HIP. (OGPAR) 1 lib., 117 zenb., 1776-ko abenduaren 4. Etimologiaz *intxaur* -tze (atzizki botanikoa) eta -di (-ti), «noceda» esan nahiaz. -Tze atzizkiaren azken bokalea erortzean (-tZ, *intxaurtz*) hurrengoa gortu egiten da (-ti -di orde, sagasTi kasuan gisa).⁶⁵ *Insusegi* lurtsaila, C. HIP. (OGPAR) 2 lib., 2 zenb., 2 or., 1857-ko urtarrilaren 15. Osagaiak *insusa* (intsusa, *sauco*) eta -egi/(t)egi atzizkia.

- IRIARTEALDE
herri bereko zuhaitz-baso eta
zuhaixka-basoa.
- IRIARTEBURU
herri bereko gaztainadia.
- IRIARTEKOETXABURUA
herri bereko belardia.
- IRIARTEZELAI
herri bereko soroa,
1834 urtea ⁰⁶.
- IRIARTEZELAIGOIENA
herri bereko zuhaitz-baso eta
zuhaixka-basoa.
- IRIARTEZELAIGOIKOA
herri bereko belardia.
- IRIARTEZELAIKOA
herri bereko zuhaitz-basoa.
- IRIARTEZELAIKOSOROBERRIA
herri bereko soroa,
erreg. 52,1,200; 1854 urtea ⁰⁷.
- IRIBARREN (IBARREN)
herri bereko baserria,
nomenklator, 94 or.
- IRIONDO
herri bereko baserria,
erreg. 52,200,84.
- ISASKI
herri bereko zuhaixka-basoa.
- ISTRUPAIN (ITZUPAIN)
herri bereko lurtsaila.
- ISURRENEA (IZURRENEA)
herri bereko baserria,
1847 urtea ⁰⁸.
- ITUARTE ETA ERREKA
herri bereko belardi eta
laborelurra.
- ITURBEGIETA EDO ETXO
herri bereko gaztainadia,
erreg. 53,63,236.
- ITURBEGIETABARRENA
herri bereko zuhaixka-basoa.
- ITURBIDETA
herri bereko garodia.
- ITURRALDE
herri bereko baserria,
nomenklator, 94 or.
- ITURRALDEGAN-
EKOSOROA
herri bereko laborelurra.
- ITURRALDETXEAZPIA
herri bereko zuhaixka-basoa.
- ITURREBI (ITURBEGI?)
herri bereko lurtsaila, IGC mapa.
- ITURRIAIN
herri bereko belardi eta
laborelurra.
- ITURRIALDEA
herri bereko belardi eta
laborelurra.
- ITURRIANGOSOROA
herri bereko laborelurra.
- ITURRIGAN-A
herri bereko zuhaitz-basoa.
- ITURRITXIKI
herri bereko zuhaitz-basoa.

⁰⁶ *Iriartezelai* soroa, C. HIP. (OGPAR) 1 lib., 465 zenb., 1834-eko maiaztaren 23.

⁰⁷ *Iriartezelaisoroberria* soroa, S. HIP. (OGPAR) 2 lib., 479 zenb., 1854-eko martxoaren 12-an Ana Katalina Goienetxea-k Martin Manuel Aranzabe-ri 2.000 dukat hartzen.

⁰⁸ *Isurrenea* (Izurrenea) baserria. «...y en sufragio de sus almas y difuntos de la casa de Usurburu con hipoteca por el dicho Arzadun de la casa llamada Isurrenea» (C. HIP. (OGPAR) 3 lib. orokorra, 39 zenb., 24 or., 1847 urtea).

ITURRITXIKIAMIKELAZ

EDO ETXEAZPIA

herri bereko soro eta belardia,
erreg. 20,63,101.

ITXASKI (ISASKI)

herri bereko lurtsaila.

ITXUTU (ITXITU?)

